



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Hofesh Shechter Company konpainia britainiarrak *Grand Finale* aurkeztuko du, Ingalaterran Olivier sarietarako eta AEBn Bessie sarietarako izendatuta egon den dantza ikuskizun harrigarria

- Bederatzi nazionalitatetako dantzariak eta zuzeneko musika eskainiko duen bandak interpretatutako sorkuntza lanak sariak eta aintzatespenak jaso ditu Kanadan eta Australian, besteak beste.
- The Times egunkariaren hitzetan, Hofesh Shechter koreografoa “zine zuzendari baten sentsibilitatea duen dantza sortzaile baten eta rock izar baten nahasketa” da.
- Arriaga Antzokiak ikuskizunaren bi emanaldi eskainiko ditu, lehenengoa ostiralean, azaroaren 1ean, 19:30ean, eta bigarrena larunbatean, hilaren 2an, ordu berean.

Bilbon, 2019ko urriaren 29an.- Gaur egungo dantza konpainia britainiar ospetsuenetako bat, **Hofesh Shechter Company**, Arriaga Antzokira dator, azken garaletan eragin handiena sortzen ari den ikuskizunetako batekin: **Grand Finale**. Duen kalitate bikainari esker, oso sari garrantzitsuetarako izendapenak jaso ditu ikuskizunak, besteak beste Britainia Handiko Olivier sarietarako edo Estatu Batuetako Bessie sarietarako, hain zuzen ere. Ostiralean, azaroaren 1ean, eta larunbatean, 2an, ikusi ahal izango dugu *Grand Finale* Arriaga Antzokian, 19:30etik aurrera.

Grand Finale asmo handiko lan ausarta da, egoitza Erresuma Batuan duen arren nazioartean proiektio handia duen dantzari talde bikainak interpretatuta. Dantzarietara batera, zuzeneko musika eskainiko duen banda. Aldi berean komikoa, iluna eta ederra da; eta bere buruarekin bat ez datorren eta energia anarkikoz eta indarkeriazko komediaz beteta dagoen mundua gogorarazten du.

Nazioartean txalotutako **Hofesh Shechter** koreografoak, goitik behera erortzen ari den munduaren ikuspegi ematen du ikuskizunean, kontzertu, dantza eta antzerki elementuak modu erabat orijinalean eta sutsuan uztartuz. Nabarmentzekoa da angustiaz beteta dagoen ikuspegi apokaliptiko hori oso dantza ederraren bitartez agertokira eramateko modua. **The Times** egunkariak, Israelen jaio baina Londresen bizi den koreografoa “zine zuzendari baten sentsibilitatea duen dantza sortzaile baten eta rock izar baten nahasketa” dela idatzi du.

Ikuskizun arrakastatsua

Lehen aldiz Pariseko Théâtre de la Villen 2017an ikusi ahal izan zen *Grand Finale* ikuskizunak Olivier (Erresuma Batua), Bessie (Estatu Batuak) eta Helpmann (Australia)

sarietarako izendapenak jaso ditu, eta, horrez gain, Tanz magazinek Urteko Ekoizpen Lana izendatu zuen eta Dora Saria irabazi zuen Kanadan 2019an.

ARRIAGA ANTZOKIRAKO SARRERAK

- 14 - 42 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefonoaren bidez eta antzokiko leihatilan, alde zuzeneko salmenta ordutegian.

Grand Finale

Hofesh Shechter Company

Koreografia eta musika: **Hofesh Shechter**

Eszenografia eta jantziak: **Tom Scutt**

Argiztapena: **Tom Visser**

Elkartutako zuzendari artistikoa: **Bruno Guillore**

Eszenografia eta jantziaren laguntzailea: **Rosie Elnile**

Musika orijinala: **Hofesh Shechter**

Musika kolaboratzaileak: **Nell Catchpole, Yaron Engler**

Perkusioa soinu bandan: **Hofesh Shechter, Yaron Engler**

Partituraren transkripzioa: **Christopher Allan**

Musika gehigarria: **Merry Widow Waltz**, Franz Lehárrena, London Philharmonic

Orkestraren eskutik eta Glocken Verlag Limitedekin adostuta

Andante Cantabile

Hari laukotea 1 eta Suite 4 en sol mayor, Pyotr Tchaikovskyrena;

Russian Tune, Vladimir Zaldwichena

Teknikarien arduraduna: **Paul Froy**

Argiztzailea: **Andrej Gubanov**

Soinu teknikaria: **Laura Hammond**

Eszena-zuzendaritza: **Leon Smith**

Eszena-zuzendaritza laguntzailea: **Naomi Harvey**

Birako kudeatzailea: **Eva Brady**

Musikariak: **James Adams, Christopher Allan, Rebekah Allan, Desmond Neysmith, Alex Paton**

Dantzariak: **Robinson Cassarino, Chien-Ming Chang, Frédéric Despierre** (entsegu-laguntzailea 1), **Rachel Fallon, Mickaël Frappat, Adam Khazhmuradov, Yeji Kim** (entsegu-laguntzailea 2), **Attila Ronai, Hannah Shepherd, Juliette Valerio**

Ekoizpena: **Hofesh Shechter Company,**

Georgia Rosengarten-en ekimenez

Mezenas kolaboratzaileak: **Sadler's Wells, Théâtre de la Ville-Paris / La Villette-Paris eta Brighton Dome and Festival.**

Babesleak: **Colours International Dance Festival Stuttgart, Les Théâtres de la Ville de Luxembourg, Romaeuropa Festival, Theatre Royal Plymouth eta Marche Teatro / Inteatro Festival, Danse Danse Montréal, HELLERAU – European Center for the Arts Dresden** erakundearekin

Kooperatzaileak: **Dresdner Musikfestspiele, Dansens Hus Oslo, Athens and Epidaurus Festival, HOME Manchester eta Scène Nationale d'Albi**

The International Music and Art Foundation-ek diruz lagunduta dago *Grand Finale*.

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus